

2013



TAO BERRITZEKO PROIEKTUA

Zarauzko EAJ-PNV udal taldea.

2013/01/28

Aurkibidea

1.- Aurreiazko hausnarketak	Orri. 3
2.- Gure proposamenari sarrera	Orri. 5
3.- TAO udal taldearen proposamena	Orri. 6

1. Aurretiazko hausnarketak.

Lehenik eta behin, gure poza adierazi nahi dugu ezker abertzaleak TAOren inguruan izandako jarrera aldaketa dela-eta. Aurreko legealdian martxan jarri zenetik kritika gogorra egin dio sistemari, beharrezkoa ez zela eta helburu bakarria dirua biltzea zuela argudiatuta. TAO herriari bizkarra emanda martxan jarri zela kritikatu zuen orduan, eta honen aurrean EAJren Udal taldeak ezinbestekotzat jotzen du gogoraraztea herritarrekin lankidetzan ezarri zela TAO, eta herritarren partaidetza izan zuela oinarri nagusi, bileren eta parte-hartze prozesuen bitartez. Zenbait adibide jartzearen, Ixpillak bizilagunek hala eskatuta sartu zen 2. eremuan, eta herri kontsultak egin ziren TAO Gipuzkoa/Lapurdi eta Mitxelena kaleetan jartzen zen ala ez erabakitzeko.

Legealdi honetan, behin gobernu ardurak hartuta, TAO beharrezkoa zela erabaki zuen Bilduk, baina hobekuntzak behar zituela azpimarratuta. Esan bezala, egokituz jotzen dugu jarrera aldaketa hori, eta egokituz jotzen dugu ere sisteman aldaketak egiteko herritarren, auzo elkartearen eta bestelako eragileen iritzia aintzat hartzea, hori izan baita beti EAJren Udal taldeak defenditu duena; TAO sistema malgua izan behar zuela, eta herriaren interesei egokitu behar zitzaiola etengabe, mugikortasunaren arloan euskarri eraginkorra izateko.

Bilduk herritarrekin eta elkarteetako ordezkariekin bi bilera txanda egin zituen iragan urtean. Tamalez, oposizioko alderdi guztiak bilera horietatik at uztea erabaki zuen. EAJren Udal taldeak behin eta berriro salatu du oposizioa baztertu nahi izana, eta behin eta berriro eskatu auzoekin egindako bileretan parte-hartzea; ez bakarrik TAOren inguruan, baizik eta aurrekontuen inguruan egindakoetan ere. Eskaera hori ahoz zein idatziz egin dugu, eta hala gelditu da jasota batzordeetako aktetan, besteak beste.

Eskakizunak eskakizun, Udal Gobernuak bere horretan jarraitu zuen, eta ukatu egin zigun parte hartzea. Horren aurrean, herritarrekin gai hau jorrazteko gure komunikazio bide propioa zabaltzea erabaki genuen, eta haien iritzia jasotzen ahalegindu gara azken asteetan. Helbide elektronikoko bat ahalbidetu genuen iradokizunak eta ekarpenak jasotzeko eta aurrez-aurreko bilerak ere egin izan ditugu zenbait elkarterekin, denboraz dezente mugatuta ibili arren. Espero dugu aurrerantzean Udal Gobernuak bestelako jarrera edukitzea eta oposizioa bazterrean ez uztea, ez baitio inolako onurarik ekartzen herriari. Hala eta guztiz ere, aitortu behar dugu partaidetza prozesuaren inguruan Udal Gobernuak informazioa helarazi digula, eta informazio hori oso lagungarria izan dela gure azken dokumentua egiteko.

Bilerak aztertzen hasita, ontzat jotzen dugu TAOren inguruko eztabaida herriko mugikortasunaren inguruko hausnarketa zabalago baten barruan kokatzea, batez ere erabaki politikoak hartzerakoan. Hala defenditu izan dugu beti. Nolanahi ere, bilerak egiterakoan, TAOren barruan sartzen ez diren gaiak mahai gainean jarri izanak (hala nola bidegorria edo autobus zerbitzua) nahastea piztu du zenbait bizilagunengan. Hala jakinarazi digute behintzat. Uste dugu TAO berez nahiko gai konplexua dela, tratamendu zehatza behar duena, mugikortasunaren beste gai askorekin lotuta egonda ere. Beraz, EAJren Udal taldearen iritziz, hurrengo parte-hartze prozesuetarako ikuspegi eraginkorragoa bilatu beharko da denon artean.

Nolanahi ere, bileretan aparkalekuak etabar. aipatu direnez, eta Bilduk egindako ordenantza proposamenean ere hizpide direnez, guk ere erreferentziaren bat egin dugu Udal Gobernuari helarazten diogun proposamen honetan.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu gure iritzian bilerak gehiegizko presarekin eta behar adinako patxadarik gabe egin direla, eta ez dugu uste zerbitzuaren emakida amaitzear egotea aitzakia gisa erabili daitekeenik. Maiatzean bi urte beteko dira legealdia hasi zenetik eta egon da gauzak beste era batera egiteko nahiko denbora. Izan ere, bizilagunekin lehen bilera txanda egin, eta TAOren erreforma egin ostean, Udal Gobernuak urtebetez luzatu du zerbitzuaren emakida.

Parte-hartze prozesuarekin jarraituz, bizilagunen bat kexu azaldu da, Udal Gobernuak bileretara joandakoei informazioa emailez bidaltzeko konpromisoa hartu, baina gero ez zuelako bete. Alde positiboan, adierazi behar da lehen bileretan gertatutakoaz ondorioak atera zituela, eta funtzionamendu zurrunegia zena aldatzen asmatu zuela, ondorengoetan bizilagunen arteko ideien elkar-trukerako eta eztabaidarako denbora irekiz.

Udaleko barne funtzionamenduari dagokionez, zer hobetu badagoela uste du EAJren Udal taldeak. Izan ere, TAO bi batzorde ezberdinetan landu izanak (Koordinazio-partaidetza eta Hirigintza) nahasmena sortu du eta oztopoa suposatu du operatibitate mailan, gure iritziz. Gainera, nahasketa hori ardurak eta erruak besteei leporatzeko erabili izan da batzuetan. Beraz, etorkizunean gaia batzorde bakarrean jorratzeko eskatzen dugu.

Era berean, eta proposatutako aldaketak eraginkorrak izan daitezen, horiek guztiak zerbitzuaren ardura duen enpresarekin kontrastatzea eta enpresaren iritzia entzutea eskatzen dugu (ez dakigu egin den ala ez). Izan ere, berorrek izango du aldaketak ezartzeko giza-baliabide eta baliabide teknikoak jartzeko zeregina (pertsonea, makinak,,). Enpresaren eskarmentua da kontuan hartu beharreko oinarrietako bat.

Azkenik, gustatuko litzaiguke jakitea bere proposamena osatzeko Udal Gobernuak bestelako zer datu eta ikerketa objektibo erabili dituen, gai hauen inguruan: Zarauzko ibilgailu kopurua, ibilgailuak familiako, auzoetan zehar kopuru hori nola banatzen den, lurpeko eta azaleko garaje kopurua... Halako azterketa teknikorik egotekotan edukitzea gustatuko litzaiguke.

2. Sarrera.

Azken hilabeteetan Zarauzko bizilagunekin, elkarteekin eta bestelako eragileekin egindako bileretan jasotako ekarpenak, posta elektronikoz jasotako iritzi eta iruzkinak, eta Udal Gobernuak bizilagunekin egindako bileren inguruan emandako informazioa sakonean aztertu ondoren, EAJko Udal taldeak TAOren inguruan duen jarrera finkatu eta bere proposamena plazaratzen du dokumentu honen bitartez.

EAJren Udal taldeak beti defenditu du TAO beharrezkoa dela aparkalekua arautzeko, baina aldi berean argi utzi du sistema dinamikoa, malgua, eta aldaketetara irekia izan behar duela, etengabe aldatuz doan errealitate batera egokitzeko. Sistema perfektua ez denez, martxan jarri zenean onura asko ekarri zituen, baina baita zuzendu beharreko alorrak ere, eta horretarako hainbat aldaketa ezarri ziren beti ere herritarrekin elkarlan zuzenean eta horiei hitza emanda.

Oro har, EAJren Udal taldeak uste du TAOren funtzionamendua egokia izan dela. Hala aitortu du publikoki Bilduren Udal Gobernuak ere, gai honen ardura duen zinegotziaren ahotik. Edonola ere, egia da gaia puri-purian dagoela eta TAO ordenantza herritarren eta herriko eragileen beharretara egokitzea etengabeko lana dela, ohiturak eta zerbitzuak ere aldatuz doalako. Aparkalekua arautzea oso konplexua da, auzo bakoitzak ezaugarri eta arazo desberdinak dauzkalako, elkar lotuta doazelako, eta herriarentzat oso garrantzitsuak diren sektore ekonomikoen bideragarritasuna (turismoa, ostalaritza, merkataritza,,,) ere bermatu behar delako.

Pieza guztiak behar bezala uztartzeko, begi onez ikusten dugu sistema berraztertzea, eta Bilduk egindako proposamenaren inguruan, hau da gure ikuspuntua. Laburbilduz, orain arteko esparruak mantentzearen aldekoak gara, egitura egokia dutela uste dugulako, eta herritarrek dagoeneko ezagutzen dituztelako. Beti ere, egitura horren gainean beharrezko hobekuntzak eginez.

3. TAO, EAJ-PNVren udal taldearen proposamena.

Eremuen banaketa: GURE PROPOSAMENA

1. Eremua. 1. Eremua zabaldu.

Mugak: Ipar aldetik hasita, 1 eta 2 eremuen arteko bereizketa Lizardi kalean egongo litzateke. Gipuzkoa kalean, berriz, muga Kasino kalean kokatuko litzateke (honaino 1 eta 2 eremuen arteko banaketa ez da aldatzen). Hego alderantz eginez, tren estaziotik lerro birtual bat marrazten dugu hego alderantz, 1 eremuaren barruan Arrona Hermanos-eko aparkalekua utziz eta Aitza kaletik jarraituz, Araba kalearekiko gurutzebideraino. Kale horretatik jarraitzen dugu Gurmendi kaleraino, bertan 50 bat metro egiten dugu behera Egaña kalera, Urdaneta kalearekiko gurutzebideraino, eta autopista azpian gelditzen den errotondaraino.

Era horretan, Azken Portu Goia 1 eremuaren barruan geldituko litzateke.

Bat gatoz 1 eremua sektoreetan banatzeko asmoarekin:

1. Sektorea: Alde zahar osoa hartuko luke.
2. Sektorea: Vista Alegre auzoa.
3. Sektorea: Azken Portu Behea eta Goia.

2. Eremua. 1. Eremuko mugatik hasita (Lizardi kalea, Nafarroa kalea Hotel Zarautzeko semaforo parean, Kasino kalea), 2. eta 3. eremuen banaketa Mitxelena kalean kokatuko genuke, Mitxelena kalea 2. eremuaren barruan sartuz.

3. Eremua. Zelai Ondo, txaleten ingurua, Eroski, Itxasmendi... hau da, gainerako guztia.

Eremu hau ere bi sektoretan banatuko genuke:

- 1. Sektorea: 3. eremu guztia barne hartuko luke, Itxasmendi izan ezik.
- 2. Sektorea: Itxasmendi auzoa baino ez luke hartuko, zubitik autobideko ordainlekuraino.

Urte sasoiak

Negua: Irailaren 15etik ekainaren 15era bitarte.

Uda: Ekainaren 15etik irailaren 15era bitarte.

Ezarpen aroak

1. Eremua. Urte osoan.
2. eta 3. Eremuak. Udan soilik.

Eremuen tratamendua

1. Eremua-1. Sektorea

Sektore honetan egoliarrentzat eremuak gordetzea ez zaigu proposa iruditzen

Errotazio altua. Kaleak: Zigordia, Salegi, Bizkaia, Foruen, Salbide (Anbulategi aurrean gelditzen den zatia) eta anbulategia inguratzen duten aparkalekuak.

Zamalanetarako eremuak. Egun dauden ondo kokatuta daudela eta behar beste tamaina dutela uste dugu: Zigordia kalea (bi zati daude) Manzidor kalea, Herrikobarra (Alde Zaharreko peatonalizazioaren bigarren fasean desagertuko den arren), Bizkaia kalea, Foruen kalea...

Iturribide kaleari orain arteko tratamendu bera emango genioke (tarifa bigunagoa eta ordutegi laburragoa du egoiliarrentzat).

Iturribide kalea eta trenbidearen artean gelditzen diren aparkalekuei ere orain arteko tratamendu bera emango genieke. Denbora mugarik gabeko epea da, azokara beraien produktuak saltzera datozen baserriarrentzat aproposa, besteak beste.

1. Eremua-2. Sektorea

Eremu honi tratamendu berezia emango genioke azalean dagoen aparkaleku gabezia dela-eta. Auzo erresidentziala da eta bisitak arrazoi zehatzengatik eta puntualak dira. Beste auzoetara joateko igarobide eremua ere ez da, zirkuitu itxia da, nolabait esateko, eta merkataritza tokirik ere ez dago. Ezaugarri horiekin, hainbat bisitarik kotxea uzteko bertara jotzen dute, denbora mugarik gabe, aparkaleku falta larriagotuz. Kontuan hartu behar da ere elkarte gastronomiko bat dagoela bertan (Kurpil), beste eremuetako bizilagunak diren bazkideak ere badituena.

Auzo guztia egoiliarrentzat gordeko genuke, TAO eremu urdinerako gune txiki bat izan ezik (Urkidi kalea), bertan bizi ez arren auzora joan nahi dutenentzat.

1. Eremua-3. Sektorea

Sektore honetan egoiliarrentzat plazak gordetzea ere ez dugu egoki ikusten.

Eremu honek ez du TAOrik, eta zama gehigarria dauka horrenbestez, bisitariak autoa denbora mugarik gabe aparkatzeko aprobetxatzen baitute. Azalean aparkaleku falta handia dagoenez, derrigorrean arautu beharreko eremua dela uste dugu:

Errotazio altuko gunea: Araba kalean ezarriko genuke, bakoitiak diren eraikinen parean (1,3,5 eta 7). 23 plaza izango lirakeke gutxi gora behera.

Zamalanetarako eremuak: bere horretan utziko genituzke.

Gainerako eremu guztia, eremu urdineko tratamendua jasoko luke.

Sakontze aldera, uste dugu eremu honetan aurreikusitako parkimetroak baino gehiago beharko direla.

Bestalde, Azken Portu Goian badago aparkalekuetarako moldatu daitekeen lur-saila. Proiektu bat ere badago horretarako. Berreskuratzeko garaia dela uste dugu.

Lur azpiko aparkalekua dugu Gurmendin, behar adinako etekina ateratzen ari ez zaiona eta gastuak sortzen ari dena. Bertako plazei bestelako tratamendua emateko unea dela uste dugu, alokairu merkeak sustatuz, edo beste formulak aztertuz. Formula horiek dagoeneko plaza erosi dutenak kontuan hartu beharko lituzkete.

2. Eremua

Eremu honetan egoiliarrentzat plazak gordetzea ere ez dugu egoki ikusten.

TAO udan baino ez.

Zamalanetarako guneak: Ondo kokatuta daude eta nahikoak dira, Gipuzkoa kalekoa izan ezik. Bertan dagoena elizaraino zabalduko genuke.

Errotazio altuko guneak: Gaur egun ez dago horrelakorik. Gune berria sortuko genuke Mintegi kalean, baina alde bakarrean, Kortazarreko partzelara ematen duen aldean, esaterako.

TAO malguko guneak: Kortazar orain arteko funtzionamendu berarekin egokitu.

3. Eremua.

1. Sektorea:

Sektore honetan egoiliarrentzat plazak gordetzea ere ez dugu egoki ikusten.

Errotazio altuko gunea. Eroski alde batera utzita, ez dago merkataritza gunerik, beraz zalantzarikoa iruditzen zaigu beharrezkoa den ala ez.

Edonola ere, beharrezkotzat jotzen dugu eremu honetako bizilagunei Eroskiko aparkalekuaren inguruan argibideak ematea, salerosketa ordutegitik kanpo erabilera libreko eremua baita.

2. Sektorea: Itxasmendi.

Vista Alegre auzoari ematen zaion tratamendu bera emango genioke, arrazoi berberengatik. Bertan ere TAO urdineko eremu bat sortuko genuke bisitarientzat. Buztin Zuri kalean kokatuko genuke, atletismo pista ondoan.

Bestelako proposamenak, hausnarketak eta eztabaidarako gaiak

Landalurretako egoiliarrak

Landalurretako egoiliarrei TAO txartela non erosi nahi duten erabakitzeke aukera emango genieke, modu horretan herriko beste egoiliarren eskubide berberak izango lituzkete.

Halaber, Landalurretako egoiliarrak aipatzen direnean uste dugu ordenantzak zehatzagoa izan behar duela, eta definizio horren barruan zeintzuk sartzen diren zehaztu behar duela: Talai-mendi, Asti, Urteta, Urdaneta, Elkano...

Egoiliar guztientzako hobekuntzak

TAO txartela erosten duenak beste eremuetan bi orduko aparkaleku librerako eskubidea izango du, Vista Alegre eta Itxasmendin izan ezik.

Halaber, zarauztarrek errotazio altuko gunetan lehen ordu erdia ordaindu behar ez izatea proposatzen dugu.

Egoiliarrekiko malgutasuna

Herritar askok eskatu dute, isunak ezartzerakoan, malgutasunez jokatzeko egoiliar txartela eduki arren aparkatzeko tokirik ez egotea gertatuko balitz. Praktikan ez da egun askotan gertatuko baina egokitzen jotzen dugu aipatzea. Era berean, malgutasuna eskatzen da ere eremu desberdinen arteko mugan bizi direnekin. Horrekin ere bat gatoz.

Epe zehatz jakin batean sistema eta aldaketen emaitzak berraztertzea

Aldaketak ezarri eta urtebetera emaitzak aztertzeke konpromisoa hartu du Udala Gobernuak. Hainbat dira erabaki hori txalotu duten bizilagunak eta guk ere begi onez ikusten dugu. Beraz, guk ere beharrezkotzat jotzen dugu epe zehatz batean sistemak emaitza ona izan duen aztertu eta aldaketa berriak behar diren ikustea.

Udako eta egun berezietako aparkalekuak

Egun eta ekitaldi berezietan aparkalekua bermatzeko, EAJren Udala taldeak Kortazar eta Eguzki-Zahar lur sailak erabiltzea proposatzen du. Hala ere, nahikoak ez balira, udan ikastetxeetako patioak ahalbidetzea ere aztertu daiteke.

Itxasmendi eta Vista Alegre

Bi auzo hauetan Udaltzainen zaintza errazteke, egoiliarrei ikusterraza den ziurtagiria ematea proposatzen dugu, kolpe batean ikusteko modukoa.

Anbulategia

Lehen hamabost minutuak doakoak izatea proposatzen dugu. Bestalde, gehiegizkoa iruditzen zaigu 120 minutuko denbora muga errotazio handiko gune honetan. 90 minututan jartzea proposatzen dugu, mediku arretarako denbora nahikoa delakoan.

Aldi berean, mediku eta erizaintzat 30 txartel banatzea proposatzen dugu (gaur egun 15 ematen dira eta ez dira nahikoak), baina lan jardunaldiaren arabera denbora mugarekin (gaur egun ez dago halakorik).

Zorroztasuna

TAOrik jartzen ez duten kanpoko bisitarietara isun gogorragoak jartzeko aukera aztertu.

Furgonetak eta karabanak

Mendilauta eta Zinkunegi kaleetan urte osoan TAO jartzea edo aztertzea proposatzen dugu, mota horretako ibilgailuek sortzen dituzten arazoak ekiditeko.

Hiruerreketa behea

Eremu honetan dagoen aparkaleku proiektua berreskuratzea proposatzen dugu. Bestek beste, Monte Albertiakoentzat balia garria izan daiteke -lehen Vista Alegren uzten zuten kotxea eta aurrerantzean ez dute aukerarik izango aldaketak onartzen baldin badira-.

Zarautzera lanera datozenak

Hala eskatzen dutenei txartela ematea proposatzen dugu, egokitutako gune batean aparkatzeko aukera emanez (Kortazar izan liteke aukera bat).

Ordutegi eta aplikazio egunak

Uste dugu alor honetan zehatzagoa izan beharko lukeela ordenantzak, gaizki ulertuak saihesteko.

Txartela eta biñeta

Ordenantzak nahasmena sor dezakeela uste dugu, bi termino hauek bereizi gabe. Ulergarriagoa izan dadin eta gaizki ulertuak ekiditeko, termino bakarra erabiltzea proposatzen dugu.

Bilduren ordenantza proposameneko testuari egiten dizkiogun zehaztapenak

- "Udal Gobernu" esamoldea kentzea dugu, eta "Udala" erabiltzea proposatzen dugu. Ordenantzak Udalak egiten ditu, ez Udal Gobernuak.
- Mollarri eta Zigordiako peatonalizazioa Zirkulazio Ordenantzan aurreikusita zegoen honezkero.
- Ordenantza TAO eta aparkalekuaren ingurukoa izanik, bidegorriari egiten zaien aipamena soberan dagoela uste dugu -horiek Zirkulazio Ordenantzan jasota daude-.
- TAOk dirua biltzea helburu ez duela dioen paragrafoa kentzea proposatzen dugu.

Komunikazio hobea

Bizilagun askok kritikatzin dute, oro har, TAO kontuen inguruan eman den komunikazioa ez dela behar bezalakoa izan, eta oraindik ere zalantza asko daudela

TAO BERRITZEKO PROIEKTUA. EAJ-PNVren PROPOSAMENA.

sistemaren eta funtzionamenduari lotutako kontuen inguruan. Herritar batek, esaterako, askok makinek nola funtzionatzen duten ez dakitela adierazten zuen. TAOren erreforma aukera ona izan daiteke denok autokritika egiteko eta alor honetan zarauztarrei azalpen osoak, zehatzak eta zuzenak nola eman adosteko.